

Arabako trenbide-garraioaren aldeko akordioa

Hitzaurrea

Akordio honen helburua Miranda eta Altsasu arteko trenbide-korridore moderno eta eraginkorra lortzea da, bidaiariak eta salgaiak garraiatuko dituen eta aldi berean Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioaren trenbide-politika berriarekin eta Europako trenbide-politikarekin bat etorriko dena. Horrela, lotura arina eta eraginkorra bermatu ahal izango dugu, bai Atlantikoko ardatzarekin, bai Kantauri - Mediterraneo korridorearekin eta baita Europako gainerako lurraldeekin ere.

Garraio Ministerioari eskatzen diogu Miranda-Altsasu linean, Castejón-Logroño eta Teruel-Zaragoza tarteetarako iragarritakoen antzeko jarduketa bat egin dezan. Aipatutako bi lineak, Arabako tartearekin batera, Kantauri-Mediterraneo Korridorean daude.

Castejón-Logroño eta Teruel-Zaragoza tarteetarako iragarritako proiektuak egungo trenbide-trazaduren egokitzean eta hobetzean oinarriturik daude eta, Ministerioak berak ziurtatzen duen bezala, prestazio handiko lineak hirietara iristea ahalbidetuko lukete epe laburrean, ondorioz, bidaiarien garraioa hobetuz.

Aipatutako tarteetan jarraitu beharreko ereduak bide emango du, batetik, geltokiak eta geralekuak berriro ireki daitezten, horrekin batera eskualdeko garraioa hobetuz. Bestetik, trenbidez egiten den merkantzia-garraioa handitzen lagunduko du, errepidez egiten dena gutxituz.

Jarduketa horiek orain arte gauzatzekoak ziren proiektuek baino askoz ere epe laburragoak eskatzen dituzte eta inbertsio-kostu txikiagoa dute. Aldi berean, gure lurraldera trenbide moderno bat ahalik eta eperik laburrenean iristea ahalbidetzen dute, horrela gure inguruko beste probintzia batzuen aurrean atzean ez geratzea lortuz. Gainera, azpiegituraren ahalmena handitzen den bitartean, behar diren inbertsioak gaur egun aurreikusten direnak baino askoz txikiagoak direnez, proposamen hau justifikatuta dago eta errentagarritasun handia du.

Arabako zatiari dagokionez, zera proposatzen da: linea birgaitzea, puntu gatazkatsuak kentzeko, tunelak egokitzea eta tren eraginkorragoak erabiltzea. Horri esker, lineak bere edukiera handituko luke eta ibilbideen batez besteko abiadura nabarmen hobetuko litzateke, bidaia-denbora lehiakorrak ahalbidetuz kutsagarriagoak diren beste garraio-bide batzuen aurrean.

Jarduera horiei esker, egungo geltokiak eta geralekuak mantendu daitezke, horrek probintzia egituratzen laguntzen duelarik. Gainera, zerbitzuak, maiztasunak, prestazioak eta abiadura handituko lirateke bidaia-denborak hobetuz. Lanpostuak sortzea eta trenbide-sektorearen barruan okupazioa berreskuratzea ere ekarriko luke, krisiak eta iraganeko trenbide-politikek gogor zigortutako jarduera profesionala biziberrituz.

Bestalde, etorkizuneko tren-azpiegiturak Arabarentzat funtsezkoa den gai bati erantzun behar diote: salgaien garraioari hain zuzen. Ildo horretan, jarduketa horiek Arabako ekoizpen-lantegiarekin eta industrialde garrantzitsuenekin loturiko trenbide-sare eraginkorra eta lehiakorra ahalbidetzen dute.

Horri guztiari ingurumen-inpaktuaren murrizketa gehitu beharko litzaioke, zenbait kasutan oharkabean geratuko litzatekeena; izan ere, azpiegitura gehiena korridore antropizatu baten barruan mantenduko litzateke, non paisaiak trenaren egungo trazadura barneratu duen.

Oro har, Estatuko beste eremu batzuetan aurrera eramaten ari diren jarduketa horiek aipatutako gaiei irtenbidea ematea lortuko lukete, Miranda-Altsasuko trenbide-korridoreak honako hau ahalbidetuko lukeelarik:

- a) Trazadura, bidaiariak nahiz salgaiak garraiatzeko erabiltzea.
- b) Trazadura, mota guztietako bidaiari-trenak erabiltzea: eskualdekoak, distantzia ertainekoak eta luzekoak, abiadura edo prestazio handiko trenak, besteak beste.
- c) Lurraldea antolatu, herriak, hiriak eta industrialdeak lotuz, isolatutako gunerik utzi gabe.
- d) Ekonomia aldetik bideragarria eta iraunkorra den azpiegitura izatea, bai gaur egun, baita etorkizunean ere.
- e) Araba epe laburrean azpiegitura lehiakorraz hornitzea.

Horregatik guztiagatik, dokumentu hau berresten duten sindikatuek honako akordioa sinatzen dute:

Akordioa

Espainiako Gobernuari eta Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioari honako hau eskatzea:

1. Miranda eta Altsasu arteko trenbidearen egungo trazaduren egokitzea eta hobetzea.
2. Miranda-Altsasu korridorarako egungo trenbide-proiektuaren plangintza birbideratzea eta prestazio handiko trenak xede horretarako hobetutako eta egokitutako egungo korridoretatik iristearen aldeko apustu garbia egitea.
3. Plangintza berri hau berehala gauzatzea, Araba estatuko eta Europako trenbide-saretik isolatuta gera ez dadin.
4. Tren-zerbitzuak zabaltzearen aldeko apustu irmoa egitea, herriak, hiriak eta industrialdeak lotuz lurraldea egituratu ahal izateko eta tren bidezko salgaien garraioa handitzeko.

Era berean, Eusko Jaurlaritzari eta Arabako Foru Aldundiari eskatzen diegu ekimen hau babes dezaten, bere esku dauden eta egokitzat jotzen dituzten kudeaketa guztiak eginez hemen azalduakoa bete dadin eskatzeko, probintziaren etorkizunari eta interesen defentsari begira.

Gasteizen, 2021ko Maiatzaren 14an